

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

36/2022 TXOSTENA

Gaia: Bermeoko Udalerrian ikus-entzunezkoen grabaketak egitea arautzeko ordenantza onartzea

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0155 (2022)

Espediente tramitatuzailea: Idazkaritza saila

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionalako Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua

Aurrekariak

Lehen.- 2022ko ekainaren 8an Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariaren erabaki proposamenaren arabera eta proposatutako ordenantzaren Zioen Azalpenaren arabera beharizana dago Bermeoko Udalerrian ikus-entzunezkoen grabaketak egitea arautzeko ordenantza onartzeko.

Bigarrena.- Bermeoko Udalerrian ikus-entzunezkoen grabaketak egitea arautzeko ordenantza onartzeko kontsulta publikoa egin da Bermeoko udaleko webgunean 2021eko ekainaren 7tik 2021eko ekainaren 22ra arte, konpondu nahi diren arazoak egokitasuna, helburua eta beste aukera erregulatzialeak azalduz.

Hirugarrena.- 2022ko ekainaren 8an Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariaren erabaki proposamenaren arabera kontsulta publikoan ez da ekarpenik jaso.

Laugarrena.- 2022ko ekainaren 8an Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariaren Bermeoko Udalerrian ikus-entzunezkoen grabaketak egitea arautzeko ordenantza onartzeko ordenantza zirriborroa prestatu du eta berorri onartzeko proposamena egin du.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/07/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2022
12:23:41

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155
Data: 08/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A248900N9T9R2Y0B5J4

CSV: 07E6000A248900N9T9R2Y0B5J4



Oinarri juridikoak**1. Aplikagarria den araudia**

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (4.1.a, 22.2.d, 25, 49, 65.2, 70.2 artikulua)
- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki erakundearen zerbitzuen araudia onartzen duena (23-29 artikulua)
- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki erakundearen lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena. (56 artikulua)
- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedimendu Erkidearen Legea (128,129 eta 133 artikulua)

2. Azterketa juridikoa**A) Oinarriko kontzeptuak**

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legeak 4.1. a artikuluan eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedimendu Erkidearen 39/2015 Legearen 128.artikuluan aitortzen da udalek duten eskumena araudiak egiteko eta autoorganizatorako. Hori horrela, Bermeoko Udalak bere eskumeneren inguruan legeek ezarritakoa garatu dezake izaera orokorreko xedapen administratiboen bitartez, zeintzuk beti legea errespetatu behar duten.

Izan ere, Bermeoko Udalaren eskumena da Bermeoko Udalerrian ikus-entzunezkoen grabaketak arautzea, Euskadiko Toki Erakundearen 2/2016 Legearen 17.1.5 eta 17.1.28 atalaren arabera eta Toki Erakundearen Ondasunen 1372/1986 araudiaren arabera.

Hori horrela, zuzena da Bermeoko Udalak Bermeoko Udalerrian ikus-entzunezkoen grabaketak egitea arautzeko ordenantza araudia landu, izapidetu eta onartzea.

Araudia onartzeko nahitaez 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezartzen diren printzipioak errespetatu behar dira espediente guztian zehar, hau da, beharrezana,



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/07/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2022
12:23:41

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155
Data: 08/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuta ahal dozu.
Kodea:
07E6000A248900N9T9R2Y0B5J4



efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak.

Kuantifikatu eta balioetsi behar dira ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

B) Jarraitu beharreko prozedura

39/2015 Legearen 132 eta 133. artikulua, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikulua eta 7/1985 Legearen 49 eta 70.2 artikulua kontuan hartuta prozedura hurrengoak izan behar da:

a) Ordenantza udalaren urteko plangintzan aurreikusita egotea (39/2015 legearen 132art).

2022ko urtarrilaren 28an onartu zen 2022ko Araudi Planean, Ordenantza honen onarpena aurreikusita egon zen.

Argi utzi behar da, nahiz eta Francisco Velasco moduko adituek defendatu Konstituzio Auzitegiaren 55/2018 epaiaren geroztik artikulua hori ez dela Toki erakundeentzat oinarritzakoa, praktika on moduan hartzen dela.

b) Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak justifikatuko du Bermeoko Udalerrian ikus-entzunezkoen grabaketak egiteko ordenantza onartzeko beharrezakoa eta erregulazio oneko printzipioak errespetatu direla.

Justifikatu du 2022ko ekainaren 8ko erabaki proposamenean eta proposatutako ordenantzaren zioen azalpenean.

c) Hala dagokionean, ordenantza aldatzeko proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Bermeoko Udalaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- ◆ Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/07/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2022
12:23:41

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155
Data: 08/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A248900N9T9R2Y0B5J4



- ◆ Arau hori onestea beharrezko eta egoki den
- ◆ Arauaren helburuak.
- ◆ Izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak.

Aurrekarietan jaso den moduan izapide hori prozeduran burutu izan da.

d) Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak Bermeoko Udalerrian ikus-entzunezkoen grabaketak egitea arautzeko ordenantza onartzeko erabaki proposamena egingo du.

Erabaki proposamena egin da eta edukiari dagokionez zuzena da.

e) Txosten ekonomikoa egin behar da kuantifikatzeko eta balioesteko ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

Txosten ekonomikoa behar ezean, Kontuhartzailearen diligenza jaso behar da espedientean, non jasotzen den kasu honetan ez dela txosten ekonomikorik behar.

f) Idazkari nagusiak txostena egin behar du.

Behin idazkariaren aldeko txostena izanda hurrengo pausuak eman behar dira.

g) Informazio batzordeak erabaki proposamenaren irizpena eman behar du.

h) Osoko bilkuraren ordenantza hasieraz aldatzea onartuko du, gehiengo soilez, 7/1985 Legearen 22.2.d eta 47. artikuluekin bat etorriz.

i) Informazio publikoa eta entzunaldia gauzatu dira, interesdunek 30 eguneko epean erreklamazio edo iradokizunak aurkezteko. Hasierako onarpena webgunean, ediktuen taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

j) Hala dagokionean, ordenantzak pertsonen eskubide eta interes legitimoen eragiten dienean, Udalak webgunean argitaratu du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten eta beren helburuak arauaren xedearekin zerikusi zuzena duten antolakunde edo elkarte legez aitortuei.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/07/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2022
12:23:41

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155
Data: 08/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.
Kodea:
07E6000A248900N9T9R2Y0B5J4



Legeak ez diosku entzunaldi hori noiz burutu behar den, baina praktikan egoki ikusten da entzunaldi hori informazio publikoaren fasearekin batera egitea, proportzionaltasuna, efikazia eta efizientzia handiagoa bermatzeko, eta, beti ere, herritarren eta elkartearen eskubideak erabat errespetatuta.

k) Osoko Bilkurak aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebatzea eta behin betikoz ordenantza onartzea.

Proposamenen jaso den moduan, hasierako onarpenean ezarri daiteke erreklamaziorik izan ezean, Bermeoko Udalerrian ikus-entzunezkoen grabaketak egitea arautzeko ordenantza automatikoki behin betikoz onartuta egongo dela; baina, horretarako, arduradunaren txostenean oinarritutako idazkariaren ziurtagiria beharko da alegaziorik egon ez direla egiaztatuz.

l) Erabakia eta aldaketen testua argitaratu beharko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko Udaleko gardentasun atalean eta ediktuen taulan eta indarrean sartuko da BAOn argitaratu eta 15 egun igarota, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikulua araberara.

Ondorioak

Espedientea aztertu ondoren, Bermeoko Udalerrian ikus-entzunezkoen grabaketak egitea arautzeko ordenantza onartzeko proposamenari **aldeko txostena oharrarekin** egiten zaio.

Oharra: Txosten ekonomikoa falta da edo, bere ordez, Kontuhartzailearen diligenza, non jasotzen den kasu honetan ez dela txosten ekonomikorik behar.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/07/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2022
12:23:41

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155
Data: 08/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A248900N9T9R2Y0B5J4



Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.
Hori horrela, txosten hau ez da loteslea eta Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.


Bermeon, orri oinean zehaztuta datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E6000A248900N9T9R2Y0B5J4</p>	<p>Sinadurea eta data</p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2022 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2022 12:23:41</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2022IDA_ERA_0155 Data: 08/06/2022 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
--	--	--	---

